

Irakurri Aitzolen jostailuaren deskribapena. Gero, osatu fitxa, eta egin marrazkia.

Aitzolen logelan jostailu asko daude, baina Aitzolek gehien maite duena Txitxito da, arrautza itxurako panpina. Esan bezala, arrautzak bezain eliptikoa da, baina laranja-kolorekoa. Txitxito du izena txikitxoa delako. Hori bai, ausarta eta bihurria da oso! Asko gustatzen zaio Aitzolekin ezkutaketan jolastea. Aitzolentzat ez da zaila izaten Txitxito aurkitzea. Esango dizuet zergatik: Txitxitok, ezkutatzen denean, animalien hotsak imitatzen ditu etengabe. Orduan, Aitzolek, belarriak erne, badaki hotsa nondik etorri, han egongo dela Txitxito!

- Izena: ______________________
- Zer da? ______________________
- Forma: ______________________
- Kolorea: ______________________
- Izaera: ______________________
- Zer egiten du? ______________________



LIVEWORKSHEETS